

Honi erantsita EAJ-PNV, EHBildu, PSE-PSOE talde politikoek Udal Plenoan eztabaidatzeko aurkezten dute **NAFARROAKO ERDIALDEKO UHOLDE LARRIEN AURREAN BABES MOZIOA**

Tolosan, 2019ko irailaren 25ean

EAJ-PNV



Joseba Ormazabal

EHBildu



Andu Martinez de R.

PSE-PSOE



Jose M.^a Villanueva

TOLOSAKO UDALARI

NAFARROAKO ERDIALDEKO UHOLDE LARRIEN AURREAN AKORDIOA

Pasa den uztailaren 8an izandako eurite handiek eta Zidakos ibaiak gainezka egin izanak, bereziki, Nafarroako erdialdeko Tafalla, Erriberri, Puiu, Beire, Pitillas, Leotz eta beste hainbat herri kaltetu zituen, etxebizitzetan, garajeetan eta komertzioetan kalte garrantzitsuak eragiteaz gain, oinarritzko azpiegiturak ere kaltetuak izan zirelarik, baita herrietako komunikazio bideak, kaleak eta landa-bideak ere.

Zoritxarrez, uholde hauek, 25 urteko Zeru Cañada Zorrilla gaztearen heriotza eragin zuten, bizi zen Gardalain herrira kotxez zihoala.

Hondamendi natural honek eskumena duten administrazio publikoen parte-hartzea eskatzen du, baita hain larriki kaltetua izan den eskualde honekiko elkartasun ekonomikoa adierazi nahi duten administrazio guztien diru-laguntza ere. Tafallako eta beste herri batzuetako udalek antolatutako auzolanetan herritar ugarik erakutsitako elkartasun pertsonalaz gain, beste toki-entitate batzuek auzolan ekonomiko bat sustatzea posiblea izanen litzateke, besteak beste, euriteek eragindako kalteak moldatzeko behar diren inbertsioei aurre egin ahal izateko.

Guzti honen aurrean, honako akordioa adosteko proposamena aurkezten zaio Tolosako Udalari:

Lehena.- Udal honek uztailaren 8an Nafarroako Erdialdean gertatutako euriteen eta uholdeen ondorioz kaltetutako herritarrei eta udalerriei elkartasuna adierazi nahi die, eta, bereziki, Zeru Cañada Zorrillaren senitartekoei.

Bigarrena.- Zentzu berdinean eta udalerrri horietako zerbitzuetan edo azpiegiturretan euriteek eragindako kalteak berreraikitzen laguntzeko, 2.000 euroko diru-laguntza bideratzea onartzen du Udalak.

Hirugarrena.- Udal honek kaltetuak izan diren herriei beraien elkartasuna adierazteko auzolan ekonomikoan parte hartzera animatu nahi ditu herritarrek, horretarako kaltetutako udalek ireki dituzten banku-kontuetan egokia ikusten duten ekarpena eginez.

Laugarrena.- Herritarrei akordio hauen berri ematea eskura dituen bitartekoen bidez.

Tolosan, 2019ko Irailaren 25ean.